

EKAINA

Ekainean zehar eguna zortzi minutu besterik ez da luza-tzen. Eguzkia: ekainaren 1ean irten 6,46etan, sartu 21,38etan. Uztailaren 1ean irten 6,48etan, sartu 21,48etan. Urteko egunik luzeenak hil honetan izango dira ekainaren 20 eta 26a bitartean, eguzkiaren irteera eta sarreraren artean hamabost ordu baino gehiagoko tartea delarik.

Ekainak 3, 21,53etan, ilargi berria (ilgora hasi)
 " 11, 8,59etan, ilgora
 " 19, 8,57etan, ilargi bete (ilbehera hasi)
 " 21, 11,54etan, Eguzkia Cancer arora sartzen da
 " 26, 11,09etan, ilbehera

* ordu ofizialak.



Artoa

EREIN		LANDATU	UZTA			
BARATZA	Ilgora * Baberruna (denak) * Leka * Artoa (denak) * Baba beltza	Ilbehera * Zerba * Ur-berroa * Buru-aza * Endibia * Letxua (denak) * Espinaka * Errefaua (udakoa)	* Azalorea (udazkenekoa) * Batata * Brokolia * Txikori-belarra * Eskarola * Azanarioa (negukoa) * Erremolatxa gorria	* Brusselaza * Azalorea (udakoa) * Porrua * Apioa * Arbi-apioa * Txikoria * Eskarola kizkurra * Letxua * Aza (Milanoa) * Aza gorria	* Baratxuria * Batata * Alberjina * Tipula * Azenarioa * Buru-aza * Azalorea * Espinaka	* Garbantzua * Ilarra * Dilista * Patata * Errefaua * Leka * Azenarioa * Kalabazina
	BELARRAK	* Perrexila * Apoperrexila * Mihilua	* Albahaka	* Erromeroa * Apoperrexila * Perrexila * Oreganoa	* Kuminua * Azitraia * Mihilua	

Erein: hazia.

Landatu: Landarea, Aldaska, Erreboila, Begia, Zainak, etab.

BITXIKERIA

Barazki bereziak

Duela ale batzuk hasitako atal honetako BARATZA sailean ohizkoak ez diren barazki batzuk aipatzen dira; gure soro eta baraztetan ekoizten ditugun barazki-barietateak dibertsifikatzeari interesgarri bait deritzogu. Hona hemen ba beren deskribapenak eta berezitasunak.

Alberjina:

Solanum melongera. Uzta: fruitua.

Urteko zikloa duen landarea. Tomatearen antzeko premiak ditu: lur arina eta ondo ongarriritua, ondugabeko ongari organikoak onartzen ditu eta eguraldi beroa behar du.

Erein: lur beroan otsail-martxoan (gramo 1 = 250 hazi)

Landatu: maiatzean, toki babes edo eguteraan. Landare artean 40-50 cm-ko tartea eta ilada artean 70 cm-ko tartea.

FRUITARBOLAK

Gereziak, gingak eta abrikot edo arbeletxe-koak biltzeko garaia. Lehen sagarrak ere heldu daitezke; barietate goiztiarrak alegia (San Joan sagarra, etab.).

Tratamenduei buruz, ELHUYAR. ZIENTZIA ETA TEKNIKA 22. alean adierazitakoari jarraitu.

ESAERAK

(Julian Alustizaren "Euskal Baserriaren inguruan" liburutik jasoak)

* San Juan berde, San Juan berde, garitzak eta artoak gorde, sorginak eta zapoak erre, biba San Juan berde. (Arantzazu)

* Orai artien belar, hemendik aurrera gari. (Urdiain)

* San Juan Garagarrilian denbora galantian, maizik eta garirik ez dagonian etxian. (Urdiain)

* San Juan Bautista, urtian bi aldiz balitze (Saldias)

* San Juan berde, San Juan Berde, koskolik batere gabe, hiru ale, hiru ale. (Gabiria)



Baberrunak

Landatu: maiatz-ekain-uztailean. 30 x 35 cm-ko tartea.

Lanak: lurra ahal den denbora guztian heze mantentzea komeni da. Uzta aurretik hosto-txortoenak zuritzea komeni da, kalitatea hobetzearren. Lan hau bi eratarata burutu daiteke: bata landarea lotu eta argia igarotzen uzten ez duen edozere inguraturaz (kartoia, etab.) eta bestea hamar eguneko tartean hiru alditan hostoetaraino lurrez estalita.

Uzta: udazken eta neguan.

Arbi-apioa:

Apium graveolens rapaceum. Uzta: sustraia.

Apioak premia berdinak ditu, baina garrantzitsuena sustraia haztea denez, Potasio-(K₂O) eta Fosforo-(P₂O₅)-ongarriketa bereziki kontuz egin behar da.

Sustraiaren hazkundera oztopatuko ez duen lur arina (hondartsua) izatea komeni da.

Lanak: tomatea bezala, hasieran arba nagusia ez den puja guztia kimatu behar da (30 cm-raino) gero 4 edo 5 adar utziz.

Uzta: abuztu-irail-urrian.

Orburua:

Cynara scolymus. Uzta: lorea.

Orburu-uzta ona lortzea ez da lan erraza, baina merezi du. Ez du hotza maite, baina itsas ertzean klima atsegin du. Lur aberatsak behar ditu; ongari organikotan aberatsak batipat.

Landatu: orburu-landareak ugaltzeko altzumak erabiltzen dira; sustrai-lepoan hazten diren pujak alegia.

Apirilean, 0,8 x 1 m-ko tartea utziz zuloko bi altzuma landatu.

Lanak: jorraldi ugari. Neguan lasto, belar edo abarrez babestu.

Uzta ondoren landare osoa ebaki, 30 cm-ra. Marrazkilo eta satorren erasoetatik babestu. Urtero ongarritu.

Uzta: udazkenean, landare bakoitzeko 10-25 lore.

3 urtetik behin landareak berritu ohi dira, baina 6 urterarte ere etekin egokia lor daiteke.

Apioa:

Apium graveolens. Uzta: hostoa.

Apioa eguraldi heze eta freskoa ditu atsegin, baina ez lehorterik eta ez hotzik. Ongari organiko heldua erabili behar da.

Erein: hazia txikia da (1g=2.000 hazi). Martxo-apirilean erein lurperatu gabe. Erneketa oso mantsoa du (gutxi gorabehera hiru astekoa) eta beti heze mantendu behar da.

Erein: urtarril-martxoan, ahal izanez gero lur beroan.

Landatu: maiatza aldera (30 x 35 cm-ko tartea). Alboetarako sustraitxoak ebaki.

Lanak: ureztaketa sarri eta labur.

Uzta: urritik aurrera. Ondo kontserbatzen den sustraia da. Horretarako lehen lurretik atera denak eta patataren antzera leku hotz (2-3°) eta lehorterik jaso.

Kuia:

Cucurbita maxima eta *Cucurbita moschata*. Uzta: fruitua.

Bere zikloa ondo burutzeko toki eguzkitsu eta beroa behar du. Beraz sororik eguterean kokatuko dugu. Ongari organiko asko behar du lurra, nahiz eta heldu gabekoa izan.

Kuia landare herrestari edo igokaria da. Normalean fruituak lurrazala ukituz hazten direnez, lur nibelatua behar du, fruituak ustel eraziko lituzketen putzuak sor ez daitezten.

Erein: martxo-maiatz bitartean. Zuzenean soroan.

Lanak: sustrai-sistema oso azalekoa du eta lehorterarekin asko sufritzen du. Beraz, ureztatuta ondo zaintzerik ez badago, lurzorua hondakin organiko osaturiko geruza batez estaltzea komeni da.

Azaleko zainen garapena indartzeko jorraldiak burutu. Gaitzik arruntena oidioa da; sufrea edo zinka duten konposatu organiko tratatzen dena. Izurriteen artean landare-zorria. Bien erasoak, ordea, ez dira kezkarriak.

Uzta: urri-azaro-abenduan, lehen izotzak baino lehen. Toki lehor eta aireztatuetan ongi kontserbatu ohi dira neguan. ■